

BERNARD ETXEPARE:
LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE

Iruñea, 1996-01-24


BERNARD ETXEPARE: *LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE*

Iruñea, 1996-I-24

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Nafarroako agintari jaunak,
Euskaltzainkideak,
Entzule jaun andereak, egun on.

Bilduak gara egun Bernart Etxeparekoaren inguruan, haren obra berriz argitaratzen baita 450 urteren buruan. Orduan, lehen aldikotz inprimatu zen euskara, Etxepare-k zuen ametsa betez osoki, erakutsiz euskara zela “scriba dayteyen lengoage bat”. Orduan aldarrikatu zuen “Kontrapas” deritzan olerkian mezu famatua: Euskara, jalgi hadi kanpora, errepikatuz gero, plazara... mundura... mundu guzira... dantzara.



Hain zuzen, edizio berri honekin euskara jalgitzen da mundu guzira, itzulpenei esker: frantsesa, gaztelera, ingelesera, alemanera, eta itailiera, mundu zabalean hedatuena diren hizkuntzetara. Itzulpenei esker, jadanik frantsesekoa eta gaztelarazkoa eginak ziren, mundu guziak jakin dezake gure lehen olerkariaren pentsa-moldea. Etxepare-ren orduko ametsa betetzen da XX. mendean Xabier Kintana euskaltzainari esker.

Eskerrak bihurtuko dizkiot Kintana adiskideari ideia ederra ukan duelakotz, bildu dituelakotz ere bertze hizkuntzetako itzultzaile bikainak. Haiak ere har ditzatela ene eskerrik beroenak.

Liburu hau ez zen agertuko ez balira bilatu diru iturriak. Elgarrekilako diru-laguntzarekin beti zerbait on egin daiteke. Nafarroako Gobernua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Euskaltzaindia bildu dira edizio berri honen agertzeko. Ene eskerrik bizienak eskaintzen dizkiet denei.

Edizio hau ez da bakarrik atzerritarrentzat egina, euskaldunentzat ere bai. Alabaina, euskal testua agertzen da XVI. mendean agertu zen bezala, orduko ortografiarekin, eta gero oraiko ortografiarekin. Konparaketa interesgarria izan daiteke euskaldunentzat.

Lau mende eta erdi iragan dira: euskara bizi da oraindik eta, dirudienez, ez du hil nahi. Orduan sortutako euskal literatura sekular bano joriago eta ederrago agertzen da XX. mende honen azken urteetan, seinale ona erakusten duela euskaldunek idazten dutela eta irakurtzen dutela. Doala beraz liburu hau Euskal Herri osora eta gero mundu guzira.

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE LIBURUAREN AURKEZPENA

Iruñea/Pamplona, 1996-01-24

*Federico Tajadura,
El Consejero de Presidencia
del Gobierno de Navarra*

Egunon denoi!

Buenos días a todos!

Nire hitzalditxoari hasiera ematean Euskaltzaindiko Jean Haritschelhar jaunari Bernard Etxepareren liburu hau aurkezteko egin didan gonbidapena eskertu nahi diot, hala nola Erakunde horrek, liburu honen lehen aurkezpena Iruñean egitean, gure Komunitatearekin izan duen kortesia.

Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin elkarlanean egindako argitalpen hau elkarrenganako begirune eta estimazioaren esparruan sartu behar da, zeinek Euskaltzaindia sortu zen urte berean, 1918an, hasi eta gaur arte iraun baitute. Euskararen Foru Legeak Euskaltzaindia “hizkuntz arauak finkatzerakoan kontsulta erakunde ofizialtzat” hartzen du. Horrelaxe ageri da 1995eko urriaren 27an Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin batera, Gobernuaren izenean, Euskaltzaindiarekin sinatu nuen *Hitzarmenean*. Bertan oroitarazten da Nafarroako Gobernuak ere urteetan zehar bere laguntza eta onarpena eskaini eta eman diola Erakunde horri zenbait ekimenen bitartez.

Lehenago esan dudan bezala, Nafarroako Gobernuak gaur aurkezten dugun lanaren argitalpena Euskaltzaindiarekin elkarlanean prestatu du. Hau ez da honelako elkarlana izan den lehen aldia. Horrela sortu dira beste liburu batzuk, adibidez Pedro de Yrizarren *Morfología del vasco auxiliar navarro* (lan eskergea, 4 liburukitan banatua, 1992); *Es-laba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Patxi Salaberrik egina (1.200 orrialdeko lana, doktoretza-tesia, 1994) eta *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Pamplona/Iruña*, José M.^a Jimeno Jurío eta Patxi Salaberri (1994).

Liburu hauek guztiek —gure aspaldiko herritar haren, euskara mundu guztian ezaugarazi nahi izan zuen garaztar haren oroimen eta omenez aurkezten dugunak bezala— amankomuneko ezaugarri bat dute, kasu batzuetan, Nafarroako gai bereziak aztertzea, eta beste batzuetan, egileak nafarrak izatea.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak liburuak argitaratzearen arloan duen interesaren funtsezko arrazoia, legearen aginduz gain (Euskararen Foru Legea, 25. artikulua), honako honetan datza bereziki: erabateko konbentzimendua duela euskararen erabilpenaren normalizaziorako ahaleginak ez direla eraginkorrak izango hizkuntza honek ez badu argitalpen eta literatur ekoizpen maila egokia lortzen. Gure garai hauetan bereziki

ezin daiteke pentsatu hizkuntza bat bizi berez iristea dagokion lan esparrua betetzen ez badu eta gaur egun erabiliak diren hizkuntza guztiek dituzten esparru guztietara hedatzen ez bada.

Arlo honi dagokionez aipatzekoa da euskarazko liburugintzan gertatu den jauzi izugarria, hirurogeigarreneko hamarkadan bostehunen bat, eta hirurogeita hamarreko hamarkadan bi milatik behera argitaratetik 1980 eta 1992 urteen artean ia hamar mila argitaratzerainoko aldaketa baitago. (Juan Mari Torrealdaik euskal liburuaren *XX. mendeko euskal liburugintzari buruz egindako Katalogoko* datuak).

Jauzi hori, kopuru aldetik handia bada, ez da txikiagoa kalitatearen ikuspegitik, iristen den gaien zabalera eta hizkuntz kalitatearen aldetik alegia.

Nafarroako Gobernuarentzat asebetegarria da argitaletxe garrantzitsu horietako baturek beren egoitza gure Komunitatean izatea. Hori da Pamiela, Txalaparta, Susa eta Igelaren kasua.

Begibistakoa da euskal liburuaren arloko argitalpen jardueraren erantzukizuna, hizkuntzari loturiko gainerako jarduerekin gertatzen den bezala, bai sektore publikoari, bai pribatuari dagokiola. Bi sekore hauen arteko elkarlana beharrezkoagoa bihurtzen da mendeetan zehar, eta duela gutxi arte, herri agintarien eta sektore pribatuaren arduragabekeria jasan duen hizkuntza baten kasuan, euskararekin gertatu den bezala.

Nafarroako Gobernu argitalpen arloan Euskarari ematen ari zaion tratamenduak badu bere garrantzia, kontuan hartzen badugu 1995ean Lehendakaritza, Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteria departamentuek argitalpenetarako erabili zituzten 100.000.000 pezetetatik, % 35 euskarazko argitalpenak egiten eta besteren ekimenak (erakunde, enpresa eta partikularrenak) diruz laguntzen erabili zirela.

Argitalpen honek, euskaraz argitaratutako lehen liburua ezagutzeko gure jakin-mina asetzeaz gain, balio beharko luke euskarari buruzko hizkuntza normalizazioan Nafarroan aurrera jarraitzeko asmo irmoaren akuilu eta bultzadarako.

Zeregin garrantzitsu hau ezin da geratu Nafarroako Herri Administrazioiek euskararekin hartu behar duten konpromisu premiazko eta garbian soil-soilik, aitzitik herritar guztien ekimen sozial eta pribatuaren elkarlana eta interesa behar da.

Lehendakaritza Departamentuko Kontseilari gisa, zeinari atxikia dagoen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, gustatuko litzaidake enpresariak (bereziki zerbitzu enpresek) gure hizkuntza bertakoaren hizkuntza normalizazioaren erronka gisa hartuko balute, dudarik gabe gure Komunitateko herritar euskaldunekin beren harremanak hobetzen lagunduko baitie.

Halaber, euskara gizarte bizitzan normalizatzeko zeregin garrantzitsu honetan herritarrek duten erantzukizuna, euskara giza eta hiritar harremanetan, edozein siniste, ideologia eta aukera politiko jakinekiko loturarik gabe, sartzen den heinean gauzatuko dena.

Horrela Etxepareren asmoari hurbilduko gatzazkio pixkana, honela baitio:

Heuskara, jalgi adi kanpora.

Heuskara, jalgi adi plazara.

Heuskara, jalgi adi mundura.

PRESENTACION DEL LIBRO: *LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE*

Iruña/Pamplona, 24-02-1996

Federico Tajadura,
El Consejero de Presidencia
del Gobierno de Navarra

Egunon denoi!

¡Buenas días a todos!

Al iniciar mi intervención quiero agradecer al Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, D. Jean Haritschelhar, su invitación para la presentación de este libro de Bernard Etxepare, así como la deferencia que esta Institución ha tenido con nuestra Comunidad, al realizar la primera presentación de esta obra, precisamente, en Pamplona.

Esta colaboración puntual del Gobierno de Navarra con Euskaltzaindia debe enmarcarse en el contexto de las relaciones de mutuo respeto y aprecio que datan desde el nacimiento de la Academia, en 1918, y que llegan hasta nuestros días. La Ley Foral del Vasconce reconoce a Euskaltzaindia como la "Institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas". Así se reproduce en el *Acuerdo* que, en representación del Gobierno, tuve ocasión de firmar con Euskaltzaindia, en Bilbao, el 27 de octubre de 1995, juntamente con las instituciones de la Comunidad Autónoma Vasca. En el mismo se recuerda también que el Gobierno de Navarra ha venido ofreciendo y otorgando su ayuda y reconocimiento a dicha Institución a través de diversas iniciativas.

Como he indicado anteriormente, el Gobierno de Navarra ha colaborado con Euskaltzaindia en la edición de la obra que hoy presentamos. Esta no es la primera vez que tiene lugar una colaboración de este género. Así han surgido otros libros como por ejemplo la *Morfología del vasco auxiliar navarro*, de Pedro de Yrizar (obra monumental en 4 tomos, año 1992); el de *Investigación del euskera de la zona de Eslava a través de la toponimia*, de Patxi Salaberri (obra de 1.200 páginas, tesis doctoral, año 1994), y la *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Pamplona/Iruña*, de José M.^a Jimeno Jurjo y Patxi Salaberri (año 1994).

Todos estos libros, junto con el que hoy presentamos en memoria y reconocimiento de este garazitarra, antiguo paisano nuestro, que pretendió dar a conocer el euskera al mundo, tienen el denominador común, en unos casos, de abordar el estudio de temas específicamente navarros, y en otros, de tratarse de autores navarros.

Sin embargo, la razón última del interés del Gobierno de Navarra en materia de edición de libros, más allá del propio mandato de la ley (LFV, artículo 28), radica especialmente en el convencimiento de que los intentos de normalización del uso de una lengua no serán nunca efectivos si dicha lengua no llega a contar con una actividad

editorial y producción literaria adecuadas. Especialmente en nuestros tiempos no se puede concebir una lengua que no cubra el amplio arco de actividad que le incumbe como tal y se extienda a todos los ámbitos que hoy en día poseen nuestras lenguas de uso.

A este respecto merece destacarse el inmenso salto que se ha operado en la industria del libro en lengua vasca, pasando de medio millar de publicaciones en la década de los sesenta, y algo menos de dos mil en la década del setenta, a casi diez mil entre 1980 y 1992, (datos de Juan Mari Torrealdai en su *Catálogo del libro vasco en el siglo XX*).

Salto que, si es grande cuantitativamente, no lo es menos cualitativamente, en relación con la calidad lingüística y el abanico de materias que abarca.

Para el Gobierno de Navarra es un motivo de satisfacción que algunas de estas importantes editoriales tengan su sede social en nuestra Comunidad. Este es el caso de Pamiela, de Txalaparta, de Susa y de Igela.

Resulta evidente que la responsabilidad en el campo de la actividad editora en cuanto al libro vasco, igual que en el resto de las actividades ligadas a la lengua, corresponde tanto al sector público como al privado. Esta colaboración entre ambos sectores se hace más necesaria cuando se trata de una lengua que ha sufrido secularmente, y hasta hace relativamente poco, la incuria de los poderes públicos y de los sectores privados, como es el caso del euskera.

El tratamiento editorial que el Gobierno de Navarra está dando al Euskera es importante si tenemos en cuenta que de los 100.000.000 de pesetas que destinó en el año 1995 a publicaciones entre los Departamentos de Presidencia y Educación, Cultura, Deporte y Juventud, el 35 % se invirtió en realizar publicaciones propias y en subvencionar iniciativas de terceros (instituciones, empresas y particulares) en euskera.

La presente publicación, además de satisfacer nuestra curiosidad por conocer la primera obra publicada en euskera, debería servir, también, como acicate e impulso en el propósito firme de avanzar en la normalización lingüística respecto al euskera en Navarra.

Esta importante tarea no debe recaer exclusivamente en el necesario y claro compromiso que con la lengua vasca deben asumir las Administraciones Públicas de Navarra, sino que también se precisa la colaboración e interés de la iniciativa social y privada y de los ciudadanos en general.

Como Consejero del Departamento de Presidencia, al que está adscrita la Dirección General de Política Lingüística, me gustaría que la iniciativa empresarial (fundamentalmente las empresas de servicios) se plantearan —si todavía no lo han hecho— este reto de la normalización lingüística de nuestra lengua vernácula, como un objetivo estratégico que sin lugar a dudas les ayudará a mejorar sus relaciones con los ciudadanos vascopartantes de nuestra Comunidad.

Igualmente, cabe destacar la responsabilidad de los ciudadanos en esta importante tarea de la normalización del euskera en la vida social, que se irá haciendo realidad en la medida que en las relaciones humanas y ciudadanas se vaya incorporando el uso del euskera al margen de cualquier credo, ideología y opción política concreta.

De esta forma iremos acercándonos al propósito de Etxepare, recogido al final de sus versos, que dice así:

Heuskara, jalgi adi kanpora (euskera sal fuera).

Heuskara, jalgi adi plazara (euskera sal a la plaza).

Heuskara, jalgi adi mundura (euskera sal al mundo).

BERNARD ETXEPARE: LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE

Iruñea, UPV/NUP, 1996-01-24

*Jose Mari Iza,
Errektoreari atxikia Hizkuntza
Normalizaziorako batzordearen
Zuzendaritzarako*

Jaun-Andreok, agur t'erdi:

Orain bi hilabete, gutxi gora behera, gizon bat inguratu zitzaidan nire bulegora. Gizon hori, Xabier Kintana zen, eta mezu bat zekarkidan.

Gaur, hain zuen, mezu horren jaiotza eta eratorria, ospatzen ari gara. 1.445-ean argitaratu zen lehen liburua euskaraz, ordu ezkeroztik, zorionez, liburu aunitzek ikusi dute heuren argia, euren aurpegia, euren izakia.

450 urteren muga dela eta, Euskaltzaindia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Gubernetuaren diru laguntzen bidez, sei hizkuntza desberdinetan inprimatu edo argitaratu da Bernard Etxeparek, gure hizkuntzan, idatzi zuen lehen liburua.

Horren ondorioa, zein da?

Europako hizkuntza nagusietan irakurri ahalko dela, euskaraz lehen inprimaturiko liburua. Beraz, nahiz eta euskaraz ez jakin, itzulpenaren bidez, ulertuko gaituzte eta biraorikan ez duen hizkuntza izanik, bihur dadila, Europan zehar, beste goi mailako hizkuntza baten antzeko.

Nafarroako idazlariaren nahia, hori izan zen: Europan zehar zabaltzea eta ezagutzat ematea gure hizkuntza.

Eta azkenik, Nafarroako Unibertsitate Publikoa poztasunez beterik dagoela argitaratu nahi dizuet.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu liburu hau argitaratzeko partaide izan diren guztiei eta Bernard Etxepare-ren asmoak bete daitezela:

Euskara jalgi hadi plazara.

Euskara jalgi hadi mundura.

Euskara jalgi hadi dantzara.

BERNARD ETXEPARE: *LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE*

Iruñea, 1996-01-24

Xabier Kintana,
euskaltzaina

Nafarroako Gobernu Kontseilari jauna, Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusi jauna, Nafarroako Unibertsitateko Ordezkari jauna, Euskaltzainburu jauna, jaun andreok, adiskideok, agur:

Ohore handia da enetzat zuen aurrean, hemen Iruñean, Joanes Etxeberri Sarakoak XVIII. mendean euskaldunen hiri buruzagia deituriko honetan, herri honetako seme-ostu baten obra aurkeztea.

Izan ere, Etxepare nafarra izan baitzen, Nafarroa Beherekoa, Garazikoa hain zuzen, gure Euskaltzainburu baigorritarraren auzoa. Eta gainera, bere bizitza osoan euskaldun nafarra besterik ez zen izan, urte haietan Pirinioetako erresuma oraindik erabat Estatu burujabea zelako.

Estatu burujabe eta, derragun bidenabar, ernazentzista ere bai, garai hartako Nafarroa orduko europarren begietarako, kulturaren, humanismoaren eta tolerantziaren ispilua baitzen. Gogoratu beharra dago, adibidez, Shakespearek bere komedia bat, *Love's labours Lost*, Nafarroan kokatu zuela, eta bertako protagonistak hauxe zioela: "Gure gortea akademia txiki bat izanen da". Halakotzat zeukan bada, Stratford-eko poetak gure Nafarroa, eta hau bereziki gogoratu beharra dago, XIX. mendetik aurrera, maiz, kanpotik eta aitortu ezineko arrazoiengatik, Nafarroa eta nafarrak, probintzia ilun, integrista, distira eta kultura gabe gisa aurkezteko interes gaiztoa izan delako. Errealitatea oso bestelakoa izan arren.

Alde horretatik Haritschelhar jaunak inoiz esan du, ez dela kasualitatea lehen euskal lana, Etxepararena, non eta Nafarroan sortzea, huraxe baitzen, bere askatasun giroan, ernazimendu garaiko arte, literatura eta erlijio korronteetarako ate egokiena eta mamigune aproposena. Margarita Nafarroakoa eta Frantzisko Xabierkoa, adibidez, jokabide kultural ireki, unibertsal eta zabal horren eredu izan genituen.

Jakin, oso gauza gutxi dakigu Etxepareren bizitzaz, eta gehienak berak kontatzen dizkigu bere liburuan. Apeza zela, adibidez, eta gartzelan izan zela, politikazko salatketak zirela medio. Antza denez, Nafarroaren konkistan Fernando katolikoaren alde ibiltzea leporatu zioten, baina berak errugabea zela diosku, eta hala dirudi, Paueko presondegitik laster atera baitzuten.

Baina merezimendu handiena Etxeparek bizitzan ez baina bere obran du, *Linguae Vasconum Primitiae* delakoa argitara eman zuelako. Ale bakarra heldu zaigu, Frantziako erregearen bibliotekan gordea, gaur *Bibliothèque National*-ean kontserbatua, Trentoko

Kontzilioz geroko moral arau hertsia goengatik, gainerako liburuak seguraski erre ziren eta. Obratxo hau, hitzurre bikainaz gainera, lau ataletan banaturik dago: hasieran poema erlijiosoak; bigarrenen maitasunezko poemak, Luis Villasanteren ustez agian poetak bere gaztaroan, apeztu baino lehen eginak; ondoren bere gartzelaldiaren poema eta azkenik euskararen laudoriozko bi poemak, Sautrela eta Kontrapasa.

Poemen kalitatea aski ona da, irakurleok erraz ikus dezakezuenaz. Bertso moeta, gehienbat gure bertsolarien eredu tradizionalari darraio, eta hor bere herri-sustrai jatorra erakusten digu Etxeparek. Ideiak, aldiz, ernazimenduzkoak ditu, garai hartako beste humanista askoren antzera, bere mintzaira kultur hizkuntza idatzi bihurtu nahi zuen eta.

Aldi berean, berak euskaldunon hizkuntza bere txokotik atera eta mundu zabalean ibilarazi nahi zuen, geroago Lizardik bezala, eta bere hasiera apal hartatik abiatutik, ondoko euskaldunak are obra handiagoak egitera bultzatu. Eta lortu ere bai. Izan ere, bere herikide nafarrek berehala hartu zuten desafiorako eskularra eta, hortaz, ez da kasualitatea, hurrengo euskal liburuak, Antso Eltsokoaren doktrina, Leizarragaren Testamentu Berria, Refranes y Sentencias, Beriainen meza-liburua, eta Axularen Gero famatua, guztiak, handik ehun urte baino lehenago nafarrek edo nafar agintarien aginduz argitaratuak izatea. Iruñeko Gorpuzti jaietako euskal bertsoetarako sariak ere ematen ziren bezalaxe.

Beraz, Etxepareren obraren 450 urteak ospatzeko, poetaren nahiari eutsiz, Euskaltzaindiak haren lana berriz argitaratzea erabaki du. Alde batetik euskaraz, orduko grafia errespetatuz, faksimilez; baina oraingo irakurleen erraztasunerako, idazkera gaurkotuz ere bai, ortografia normalizatuan, alegia. Eta euskara mundu zabalera jalgi dadin, Europako eta munduko hizkuntza nagusienetako batzuetara ere itzulia eman nahi izan du Euskaltzaindiak euskal literaturaren hasikin hau.

Gaztelaniara, Patxi Altuna euskaltzainak moldatu du obra hau, hitzurre bikaina-ekin lagundurik, autore honetaz egin zuen doktorego tesi sakonaren laburbilduma gisa. Ingelesezt, gaurko nazioarteko hizkuntza hedatuenean Michael Morris amerikarrak egin du, ingeles irakasle, euskaldun berri eta, zergatik ez aipa, Iruñeko andre batekin ezkonduak. Frantses itzulpena René Lafon hizkuntzalari famatuari zor zaio, luzaro Bordeleko katedradun izan zenari. Alemanera Johannes Kabatek erromanistak itzuli du, Javier Oroz Arizkuren irakasle nafarraren ikasleak, eta italierazko itzulpena Danilo Manera italiar irakasle eta itzultzaile finak prestatu du, Cesare Pavese idazle ezagunaren senideak.

Beste pertsona batzuek ere, hitzurre eta oharretan parte hartu dute: Horietako bat Haritschelhar jauna izan da, bai eta Piarres Xarritton euskaltzainak eta Ludger Mees historialari aleman euskaldun berriak, berau ere, Iruñeko andre batekin ezkonduak eta horrek Iruñeko neskek zerbait berezirik eduki behar dutela pentsarazten digu, atzeritar gazteak hain trebeki berenganatzeko. Aipa ditzagun, azkenik Fernando García Angulo, azalaren eta mapen irudigilea eta Teresa Lekunberri andrea, Etxepareren jaiotetxearen argazkia liburu honetarako eskaini diguna. Rikardo Badiola jaunak, Euskaltzaindiaren argitarapenen arduradunak, halaber, laguntza eta aholku baliotsuak eman dizkit moldiztegiko arazoetan.

Obra hau, ordea, ez zen aterako Euskaltzaindiaren eskariari hain ongi erantzun dioten erakunde batzuen lankidetzaz estimagarria izan gabe. Lehenengo eta behin Nafarroako Gobernuarena, bere Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia den Jose María

Rodríguez Ochoa jaunaren bitartez. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere ezin hobeki erantzun zigun, Hizkuntza Normalizaziorako Errektore Atxikia den Jose Maria Iza jaunaren eskutik. Deustuko Unibertsitateak, bestalde, laguntza eskergarria eskaini digu, bai hango kide den Patxi Altuna irakaslearen eta bai hango errektoreorde den Antoni Yabar jaunaren bidez, nafarra berau ere. Nafarra zen/den bezala, noski, Euskal Herriko Unibertsitateko oraintsu arteko Euskararako Errektoreorde, eta orain Unibertsitateko errektore dugun Pello Salaburu jauna, euskaltzaina, lehen unetik proiektu hau bultzatu zuena. Aitor dezadan, beraz, guztiokin dugun zorra.

Ni horien koordinatzailea besterik ez naiz izan, batzuen eta besteen arteko bitartekaria, liburuari forma ematen saiatua. Beraz, liburuaren on-bikainak horretan parte harturiko egile eta itzultzaile aparte zoz zaizkie; hutsak, otoi, niri egotzi.

Nafarroan egin nahi izan dugu liburuaren lehen aurkezpena, Iruñean. Alde batetik aurreko mendeetan Etxeparek, Axularrek, Campionek eta beste anitz nafarrek gure hizkuntzaren fabore egindako lana eskertzeko. Bestetik oraingo nafarrei, erakundeetatik, administratziotik, irakaskuntzatik, gizabide eta kultur mundutik, zaratotsik gabeko lan serio eta ixilean guztion *lingua navarrorum* zahar eta berriaren alde oraindik egiten segitzen dutenei, beren ahaleginean berekin gaituztela adierazteko ere bai. Zuekin gaituzue, adiskideok, zuengandik ikasteko prest eta elkarlanerako beti gertu. Guztioi, anitz esker.

BERNARD ETXEPARE:
LINGAUE VASCONUM PRIMITIAE

Bilbo, 1996-II-05

BERNARD ETXEPARE: *LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE*

Bilbo, 1996-II-05

Patxi Altuna

Liburu honi Hitzaurrea ipintzea eta hamabost kantak gaztelera itzultzea X. Kintanak proposatu zidanean, baietz erantzun nion, eta pozik, egun haietanxe ari bainintzen pentsatzen eta MENSAJEROekin hitzegiten ea antzina egin nuen Edizio Kritikoa eder-hobetzea eta berritzea merezi zuen. Asmo hau bertan behera utzi eta X. Kintanak eskaini zidanari ekin nion. Eskerrak eman nahi dizkiot hastetik beretik, baieta Pello Salabururi ere, hau baitzen orduan Euskalerriko Unibertsitateko Euskararen Erretoreordea.

Iaz, 1995ean, bete ziren 450 urte, entzun duzuen bezala, euskarazko lehen liburua argitaratu zenetik, 1545ean inprimatu baitzen Bordelen. Oker aritzeko arrisku handirik gabe esan dezakegu, beraz, 1545. urtea dela euskararen historian, eta batez ere euskal literaturarenean urterik handiena, hura izan baitzen ez, noski, euskara sortu zenekoa, ezta hurrik eman ere, baina bai euskara heldua, adindua eta garatua inprintako moldetan mundura ialgi zitzaigunekoa.

Data horren berri lehen aldiz jakiten dutenetatik, batek esaten dizu: “Ene bada, bai berandu!”; beste askok, berriz: “Ene, bada, bai goiz!”. Nork du arrazoi? Zer da 1545 Europako herri txiki baten hizkuntzarentzat, goiz ala berandu? Goiztarra ala berantiarra dela esan behar dugu euskal literatura?

Gogora ditzagun puntu batzuk. Inprinta ehun urte, hortxe-hortxe, lehenago sortua zen Gutenbergeket-eta asmaturik, ez lehenago. Munduan 5.000 hizkuntza diferente omen dira, gutxi gorabehera, eta horietatik bi hiltzen, itzaltzen eta suntsitzen omen hiloro, beroien azken mintzalariak hiltzen direlako, noski —Erronkarierarekin guri duela urte batzuk gertatu zitzaiguna— eta, jakina, horietako asko literatura idatzirik sekula izan gabe suntsitzen.

Berriro diot: goiztarra ala berantiarra da euskal hizkuntza, hobeto esan, euskal literatura? Nolako begiz begiratzen zaion. Badira, noski, literatura zaharragoa eta lehenagokoa dutenak, nola ez! Baina badira ere, eta pilo handi bat, geroagokoa eta beranduagokoa dutenak. Nik hauxe esango nuke: apustu egingo bagenu zein hizkuntza diren gehiago munduan, euskarak baino literatura idatzia zaharragoa dutenak ala geroagokoa dutenak, azken hauek irabaziko luketela uste dut, eta hainbestez zaharragoa duten lehen bi mila eta erdiren artean —bederen— geldituko litzatekeela euskara.

Jakina, euskal literatura idatziaz eta inprimatuaz ari gara, hori da 1545ean izaten hasi zela dioguna. Horregatik orain arte esanak ez du inondik ere esan nahi ordu arte bertsolaririk ez zenik eta euskaraz bertsoak ontzen aritzen ez zirenik. Baziren baina ez zituzten inprimatzen. Ernst Lewy hizkuntzalari doixtar juduak dio Etxeparerena beza-

lako bertsogintza, juxtu, berregin eta dotorea, ezin izan daitekeela goizetik gabera sortua, mende askotako tradizioaren eta jardunaren errainua dela nahitaez.

Beste horrenbeste esan daiteke prosazko Hitzaurreaz eta batez ere Leizarragaren prosari buruz. Alferrik esango du Schuchardtek Leizarragak berak sortu zuela berak erabili zuen hizkera. Bai eta ez; "halakoa" bai, hura ez. Esan nahi baita, hark erabili zuen "hura" bazen lehendik ere, eta ez "mintzaira" zen aldetik bakarrik, ez hizkuntza hartan beste asko hura baino lehenago mintzatu zirelako bakarrik, baita hartan idatzi ere egin zutenak izan zirelako. Baina "halakoa" eta hala idatzia ez zen izan lehenago: horretan ados. Leizarragak arropa eder, berri batez jantzi zuen konkretuki inongoa ez zen hizkera, berak dioen bezala, toki askotakoek aditzeko modukoa bihurtu nahirik.

Lapurdiko zenbait Elizatako sakristia zokoetan aurkitu zituela Leizarragak sermoi zahar, hango apaizek pulpitotik irakurtzeko idatziak, hala dio behin Duvoisinek, eta haietan edoski zuela lapurtera zaharra, gero bere Testamentu Berriaren itzulpenean erabili zuena.

Egia ala gezurra, ez zaigu axola. Guri axola zaiguna da Leizarraga baino lehenago bazirela ez sermoiak idazten zekiten apaizak bakarrik, baita elkari eskutitzak idazten zekiten herriko jendeak ere, berriki azaldu diren batzuek ongi erakutsi diguten bezala.

Gertatzen dena da ez zutela inprimatu inoiz halako izkriburik eta hori egiten ausartu zen lehena Etxepare izan zela: "miraz nago, Jauna, nola batere ezten assaiatu... eskributan imeitera". Goiz zen ala berandu zen? Hara: gu pozik gaude daukagunarekin eta eskerrona erakusten saiatu gara aurten geure lehen idazle ezagutuari. Egia da, haatik, lehenagokoa ere pozik hartu izango genukeela, izan bagenu. Eta azkenik hauxe: hartuko lukete hamaikatzok gurea bezain zaharra!

Nolako poesia den Etxeparerena? Hitz bitan esango dizuet eta gainera besteren hitzez baliatuko naiz, Mitxelenarenez. Honela dio: "Berea (Etxeparerena, alegia) ez da, gainera, poesia huts-soila, edertasun biluziaren ispilu izan nahi lukeena, baizik eta arrea, loia, giza-gorputz-arimen hondar zikinak, urre izpiz nahasiak, igeri daramatzen erreka". Bizpahirutan irakurtzen baduzue iritzi hori, hobeki ulertuko duzue eta zuzenagotzat joko horren muina.

BERNARD ETXEPARE: *LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE*

AURKEZPENA

Bilbo, 1996-II-05

Rosa Miren Pagola

Laurehun eta berrogeita hamargarren urteurrena arrazoi bikaina gertatu da euskara lehenengoz eta beren-beregi idatzira eta liburura eramán zuena gogora ekarri eta omentzeko. *Linguae Vasconum Primitiae* lehen euskal liburua izanik, batez ere euskararen duintasunaren testigantza da, euskararen balio eta ahalmenaren erakusgarria, beste edozein hizkuntzaren parean euskara agertu, indartu eta hedatu beharraren frogá, eta liburua bera horren ondorioa baizik ez da, sortu berria zen inprentan moldezko letretan euskara jarri beharraren emaitza.

Lehen euskal liburuak bazuen, besteren artean, asmo bat, euskara munduan barna ezagutarazi eta, egileak berak ere lerro tartean onartzen zuenez, orduan ere gauza berri eta harrigarritzat joko zen liburua euskaraz.

Gauzak, denboraren iraganean eta euskaldunon ahaleginaz, asko aldatu diren arren, oraindik ere liburu hau harrigarria gertatuko da hainbat tokitan, eta hainbestek eta hainbestek, euskararen entzuterik izan edo ez izan, lehenengoz ezagutuko du euskara idatzia eta euskara bera liburu hau eskuetan hartzean. Lehenengoz hartu ahal izango dio euskararari antza eta itxura, lehenengoz ikusiko du euskara Mendebaldeko hizkuntza nagusien parean.

Ez dut uste gauza txarra egin denik gure lehen liburua, bere laurehun eta berrogeita hamar urteurrenean, gure inguruko eta Europako hizkuntza behinenetara itzuliz eta gero horrelako irudi ederrean argitaratuz.

Ohore Etxeparereri hain garbi ikusi zuelako bideurratzaile zela eta euskara zernahitarako prestatu eta mundura igorri nahi izan zuelako, ohartuz hizkuntzaren hegotan Herria ere joango zela mundura.

Ohore, bai, Etxeparereri, eta merezi zuen liburu hau horrela argitaratzea. Liburu honekin sartu ginen moldiztegiak zekarren kulturara eta kultur zabalkundera; liburu hau da gure hizkuntzaren lekukotasun kulturik zaharrena; liburu honek agertzen du noiztik den Euskal Herrian euskararen harrotasuna eta euskararen kezka konszienteá. Beraz, argitalpen hau izango da, kanpora begira eta dagokion maila kultoan, egin ahal izango dugun oparirik ederrena eta, agian, baita estimagarriena ere.

Liburu honek geure burua munduan batere lotsarik gabe agertzen lagunduko digu eta, bidebatez, balio dezake, hori nahi genuke, euskararen aldeko ekina Euskal Herrian eta munduan Etxeparek nahi zuen bezala indartzeko. Helburu garrantzitsuak denak, eta Deustuko Unibertsitateak horiek lortzeko omenaldi honekin bat egin du gogo hagitz onez. Eskerrik asko.